

ESKAERA ABALATZEN DUEN TALDEAREN BETEBEHARRARI BURUZKO OHARRA.-

Deialdiaren 5.2 oinarriarekin bat, beharrezkoa da hautagaiaren eskaera abalatzten duen taldeak finantzazioa izatea eskaera egiten den unean.

Deialdi honen xedea da ikertzaile doktoreen espezializazioa sustatzea, unibertsitateko ikerketa-taldeei atxikiz. Hori dela eta, kontuan hartuta deialdi hau argitaratzeko atzerapena eta 2021. urtearen amaieran Eusko Jaurlaritzak finantzatzutako taldeak amaitzeko aurreikuspena, deialdi berria oraindik ebatzi gabe dagoela, beharrezkotzat jo da 2021eko abenduaren 31n finantzaketa duten taldeek 5.2. oinarriak ezartzen duen baldintza betetzen dutela onestea.